

GURASOENTZAT/TUTOREENTZAT AHOLKUAK

Udalekuak gatazkarik gabe eta modu onean joateko gure esperientzian oinarrituriko aholku batzuk ematen dizkizuegu (oso gomendagarriak):

Zure alaba/semea kanpaldiaren prestaketan nahasi

Behar dena erosten, eramango dituen gauzak markatzen eta horrelakoak egiten lagundu dezake seme-alabak kanpaldira hobeto egokituz joateko.

Balio handiko ezer

Balio handia duen ezer ez eramatea gomendatzen dugu ezta estropeatu ezin den gauza berririk ere. Hauek apurtu, zikindu edo galdu daitezke eta pena izango litzateke honegaitik momentu txar bat pasatzea.

Dirua

Ez dute diruruk eraman behar baina eramatekotan **10 € baino gehiago EZ** eramatea eskertzen dugu.

Dena marka ezazu

Gauza guztiei izena jarri mesedez. Zerbait galtzean izenik ez badu, oso zaila da jabea aurkitzea. Hortzak garbitzeko zepiloa, toalla, barneko arropak, linterna, kantimplora... guztia markatu mesedez. Ahal bada, izen abizenarekin.

Zorriak

Zuen seme-alabak zorriak ez dituela ziurtatu. Taldeka egingo dute lo eta oso erraz kutsatzen dira. Oso ezatsegina da udalekuan zehar zorrientzako tratamendua ematea. Hilea motza ekartzeak nahiko oztopatzen du kutsadura.

Telefono mugikorrik ez

Mesedez. Ez dute telefono mugikorrik behar. Gainera ez dute kargatzeko aukerarik izango. Tresna hauek bakartzea sustatzen dute eta lagunak egitea oztopatzen du. Aurkitzen baditugu, azken egunera arte gordeko ditugu.

Ez ipod, PSP ezta kamara digitalak edo antzekoak

Lehen esan bezala, tresna mota hauek bakartzea sustatzen dute eta ez dira kanpaldira joaten "makinita" batekin ibiltzeko, lagunak egin, naturaz gozatu eta beste kideekin jolasteko baizik.



Kontuz

Okerrera eraman dezaketen "joan zaitetz eta, ez bazaizu gustatzen, dei nazazu eta zure bila joango naiz" motako esaldiak ekidin ditzagun. Batzutan, hauek haurraren eta beste partaideen arteko erlazioan eragiten baitute, bere guraso/tutorekin etxera itzultzeko bideak bilatuz.

Nezeser

Zitxada aurkako zerbait nezeserrean eramatea gomendatzen dugu. Baita eguzkitako krema (uretan irauten duenetako bat), txanpua, hortzak garbitzeko pasta, etabar. ere

Posta

Guraso/tutoreen posta jasotzeak ilusio pila egiten die eta pilak kargatzeko forma ona da. Kanpaldi hasieran (edo hasi baino bi egun lehen) bidali, garaiz iritsi daitezten. Batzutan txanda bukatutakoan gutunak jaso ditugu.

Motxila egiterakoan

Zuen sema-alaba, motxila egiterakoan bertan egotea oso garrantzitsua da, eta motxila egiten laguntzen badu, hobe. Bere gauzak non dauden, nolakoak diren eta zenbat diren ikasiko du, kanpaldiko egunerokoan hobe moldatuz da eta gauza gutxiago galduz.

Motxilan/maletan zer eraman

- Lehen bazkarirako janaria
- Lo egiteko sakua
- Esterila isolatzailea
- Eguneko motxila bat
- Plater sakona, mahai tresnak, edalontzia (metalezkoak ahal bada)
- Linterna (eta pilak)
- 1 Kantimplora
- Nezeser (hortzetako eskuila, txanpua, pasta, eguzkitako krema...)
- Mendiko botak (estrenatuak)
- Errekan sartzeko txankletak
- Kirola egiteko oinetakoak
- 1 Eskuoihala
- Barneko arropa (eguneko aldagarri bat)
- Eguneko kamiseta bat (horietako bat, txuria)
- 2 Bainujantzi
- 2 Jertse



- Beroki bat
- Zira bat
- Pijama
- 3 galtza motza
- 2 galtza luze

Aukeran

- Sobreak etxeko helbidea eta sigiluarekin
- Jokatzeko kartak
- Pelutxe bat
- Erabili eta botatzeko argazki kamera
- Eltxoak uxatzeko produktua
- Sendagaiak (behar baditu)
- Frisbee
- Iparorratza, prismatikoak, lupa
- Errepaso koadernoak
- 10 euro
- ...



Galdutako gauzak

Txanda bukatzean galdu diren eta aurkitu ditugun gauzak, (berokiak, oinetakoak, linternak...) izenik ez badute, argazkiak egin eta emailez bidaliko ditugu jabeak aurkitzeko. Barruko arropak, egoera txarra duten jantziak, hortzetako eskuila eta antzeko objektuak, zuzenean zakarrontzira botako ditugu.

Ez gara udalekutan galdutako gauzez erantzule egingo. Ahal dugun guztia egingo dugu ezer ez galtzeko.

Kanpamenduarekin harremanak

Larrialdietarako telefono bat egongo da erabilgarri. Telefono hau premiazkoak ez diren deiekin ez okupatzea eskatzen dizuegu. Gure sare sozialak (Facebook, Instagram, Twitter...) erabiliko ditugu kanpaldiaren jarraipena egin dezazuen argazkiak eta komentarioak jarri. Posta arrunta erabiltzea gomendatzen dugu.

Udalekuen jarraipena eta kontaktua

Sare sozialetan ditugun perfiletatik ekintzen jarraipena egin ahalko duzue. Ahal dugunean argazkiak jarriko ditugu gure [Facebook](#) eta [Instagram](#) perfiletan.

Facebook-eko argazkiak eta laburpenak ikusteko perfilaren "laguna" egin behar zarete. Txandak bukatzean [Flickr](#)-en eta [Youtube](#)-n sartuko ditugu argazkiak eta bideoak.

Segurtasuna

- Lehen sorospenerako botikina eta formakuntza dugu.
- Bi ebakuazio-simulazio egiten saiatzen gara larrialdietan prest egoteko.
- Programatuta ditugun jarduera guztiak ondo prestatuak daude edozein arrisku txikiagotzeko. Aisian beti egongo da begirale bat zaintzaile.
- Alergia eta intolerantzietan arreta handia jartzen dugu ez kutsadurarik egoteko.
- Nahiz eta gure esku dauden arreta guztiak hartu, beti gerta daiteke istripu txikiren bat, kolpe bat... parte-hartzailearen ongizateari lehentasuna emango diogu beti.

Besteak

- Ezbehar bat gertatzen bada, jantziak edo sakua garbitzeko aukera dago.
- Irailaren lehenengo igandean Belarroller ospatzen dugu.
- Udalekuak bukatutakoan, lotura baten bidez, argazki guztiak deskargatu ahal izango dituzue.